
MAIXABEL

PROPOSAMEN
DIDAKTIKOA /
+13 URTE



2022

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN
**GIZA ESKUBIDEEN
ZINEMALDIA**
**FESTIVAL DE CINE
Y DERECHOS HUMANOS**
HUMAN RIGHTS
FILM FESTIVAL

DONOSTIAKO
GIZA ESKUBIDEEN
19. ZINEMALDIA.
2022

Donostiako Udaleko
Giza Eskubideen Saila
eta Donostia Kultura

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN
GIZA ESKUBIDEEN
ZINEMALDIA
FESTIVAL DE CINE
Y DERECHOS HUMANOS
HUMAN RIGHTS
FILM FESTIVAL



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Giza Eskubideak
Derechos Humanos



donostiakultura

IKERTZE

www.ikertze.org

PROPOSAMEN DIDAKTIKOA / **+13 URTE**

Filma ikustera joan aurretik ikasleekin lantzeko

1

Izenburua

2

Talde teknikoa eta artistikoa

3

Ekoizpenari buruz

4

Zuzendariaren biofilmografia

5

Maixabel Lasa eta Juan María Jáureguiaren biografia

6

Sinopsia

7

Gidoi originala eta gidoi egokitua

8

Ikasgelan elkarriketa lantzeko galdera motak

Filma ikusi ostean ikasleekin lantzeko

9

Espainiako aldi erabakigarriak

10

Giza Eskubideen Hitzarmen Unibertsala berrikusi: Abenduaren 10a, Giza eskubideen eguna

11

Memoriaren eguna, azaroak 10

12

GIZAKIA EDO PERTSONA, lorpen pertsonal bat. Errukian, enpatian, eskuzabaltasunean eta errespetuan barna egindako bidea

13

Filma hitz bakarrean

14

Pertsonaien deskribapena

15

Elkarriketak

16

Filmak igortzen dituen balio edo baloreak

17

Filmak zer sentimendu eragin dizkizu?

18

Biktima, biktimagilea eta indarkeria motak

19

Sakontzeko proposamenak

20

Zuen ustez, zer esan nahi dute esaldi hauek filmaren testuinguruan?

21

Elkarriketak eta egoerak

22

Koldo Zuazua ekoizle, Iciar Bollain zuzendari eta Maixabel Lasaren mezua

23

Ariketa: Sufriarazi dizun norbaitekin hitz egiteko urratsa emango zenuke?



**Filma ikustera
joan aurretik
ikasleekin
lantzeko**

1. Izenburua

UNA PELÍCULA DE
ICÍAR BOLLAÍN

MAIXABEL

2. Talde teknikoa eta artistikoa

ZUZENDARIA

GIDOIA

ARGAZKILARITZA ZUZENDARIA

MUSIKA

ARTE ZUZENDARIA

MUNTAKETA

ZUZENEKO SOINUA

SOINUAREN DISEINUA

JANTZIAK

MAKILLAJEA

ILEAPAINDEGIA

VFX

EKOIZPEN ZUZENDARIA

EKOIZLE EXEKUTIBOAK

Icíar Bollain

Isa Campo
Icíar Bollain

Javier Agirre

Alberto Iglesias

Mikel Serrano

Nacho Ruiz Capillas

Alazne Ameztoy

Juan Ferro

Clara Bilbao

Karmele Soler

Sergio Pérez

Ana Rubio

Guadalupe Balaguer

Koldo Zuazua
Juan Moreno
Guillermo Sempere

MAIXABEL

IBON

MARÍA

LUIS

ESTHER

CARMEN

PATXI MAKAZAGA

TXEMA

JAIME OTAMENDI

ESCOLTA

Blanca Portillo

Luis Tosar

María Cerezuela

Urko Olazabal

Tamara Canosa

Arantxa Aranguren

Mikel Bustamante

Marxelo Rubio

Ibon Belandia

Álex de la Peña





3. Ekoizpenari buruz

Gipuzkoan eta Araban errodatu zuten zazpi astetan, eta Blanca Portillo eta Luis Tosar aktoreak dira film honetako protagonistak. Benetako gertakarietan oinarrituta, Maixabel Lasaren istorioa kontatzen da. Juan María Jaúregui euskal politikaria ETAK hil zuen, eta haren alarguna, Maixabel, senarra akabatu zuten pertsonekin kartzelan hitz egitera ausartu zen lehen biktimetako bat izan zen, “Langraiz bideak” 2011tik sustatutako topaketa konponarazleen testuinguruan.

Isa Campo gidoilariak (*Entre dos aguas*, 2018) eta Icíar Bollaín zuzendariak idatzi zuten *Maixabel*. Protagonisten artean ditugu Luis Tosar (hiru Goya sari ditu, horietako bat Bollaínen 2003ko *Te doy mis ojos* filmarengatik; zuzendari berberarekin lan egin zuen 1999ko *Flores de otro mundo* lanean eta 2011ko *También la lluvia* film luzean) eta Blanca Portillo (*Invisibles*, 2019; eta Cannes zinema jaialdian aktore onenaren saria eskuratu zuen *Volter* filmarekin, 2006an). Horiekin batera aritu ziren María Cerezuela (*Inolvidables*, 2021; *Útero 26*, 2019) eta Urko Olazabal (*Víctima número 8*, 2018; *Errementari*, 2018).

Soinu banda Alberto Iglesiasek konposatu zuen, hamaika Goya sari eta Oscar sarietarako hiru izendapen dituen musikariak. Javier Agirre da argazkilaritza-zuzendaria (2017ko Goya saria eskuratu zuen *Handía* lanarekin). Mikel Serrano da arte-zuzendaria (*Akelarre* eta *Handía* lanekin Goya saria). Alazne Ameztoy da soinu arduraduna (2020ko Goya *La trinchera infinita* lanarekin). Hiru Goya sari dituen Clara Bilbao arduratu zen jantziez. Karmele Soler izan zen makillaje-arduraduna (2012ko Goya saria *La piel que habito* lanarekin) eta Sergio Pérez, ile-apaindegiko arduraduna (Patria 2020). Nacho Ruiz Capillas arduratu zen muntaketaz (2004ko Goya saria *Los Otros* lanarekin).

Maixabel filmaren ekoizpenaz arduratu ziren Kowalski Films (Koldo Zuazua) eta FeelGood (Juan Moreno eta Guillermo Sempere). RTVE, EITB eta Movistar+ telebistek parte hartu zuten, eta ICAA Kultura Ministerioaren, Eusko Jaurlaritzaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta San Sebastián - Gipuzkoa Film Comission-en diru-laguntzak eskuratu zituzten. Filma Espainian Buena Vista International-ek zabalduko du, eta, nazioartean, Film Factory arduratuko da.




2021EKO IRAILETIK 2022KO MARTXOAREN 22RA
JASOTAKO SARIAK ETA IZENDAPENAK

525.894
ikusle

4. Zuzendariaren biofilmografia

Icíar Bollaín (Madrid, 1967) zuzendari, gidoilari eta aktoreak 15 urterekin lehen urratsak egin zituen zineman, aktore gisa, Víctor Erice zuzendariaren *El Sur* lanean (1983). La Iguana ekoizpen-etxea sortu zuen 1991ean, bere zuzendari-lanak sustatzeko. *Hola, ¿Estás Sola?* (1995) da bere lehen film luzea. Gerora etorri ziren beste hainbat film: *Flores de otro mundo* (1999); *Te doy mis ojos* (2003), azken horrekin bi Goya sari jaso zituen zuzendaritza eta gidoi onenarenak; *Mataharis* (2007); *También la lluvia* (2010), Paul Laverty-ren gidoiarekin, eta *Katmandu, Un espejo en el cielo* (2011). Zinegileak dokumentalekin ere saiakera egin zuen *En tierra extraña* (2014) filmean, eta gero berriro ere fikziora bueltatu zen *El Olivo* (2016) lanarekin. Bi urte beranduago estreinatu zuen *Yuli* (2018) eta 2020an Candela Peña zuzendu zuen *La boda de Rosa* filmean. Ikus-entzunezkoetako eta zinemagintzako emakumeen CIMA elkarteak sortu zuen. Batetik, ikuslearekiko gertutasuna eta, bestetik, sentsibiltatea eta dotorezia konbinatzen duen bere estiloa hobekien uztartzen jakin duen zuzendari espainiarra da.



2021	<i>Maixabel</i>
2020	<i>La Boda de Rosa</i>
2019	<i>Yuli</i>
2016	<i>El Olivo</i>
2014	<i>En tierra extraña</i>
2011	<i>Katmandú, un espejo en el cielo</i>
2010	<i>También la lluvia</i>
2007	<i>Mataharis</i>
2004	<i>¡Hay motivo!</i>
2003	<i>Te doy mis ojos</i>
1999	<i>Flores de otro mundo</i>
1995	<i>Hola, ¿estás sola?</i>

5. Maixabel Lasa eta Juan María Jáureguiren biografia



Maixabel Lasa Iturrioz

Euskadiko bizikidetzaren aldeko aktibista eta politikari espainiarra da.

70eko hamarkadan, Espainiako Alderdi Komunistako kide izan zen, Juan María Jáuregui senarrarekin batera, eta, 80eko hamarkadan, Euskadiko Alderdi Sozialistako kide egin zen. 2000 urtean, ETAK bere senarra hil zuen. 16 urtetatik bere bidelagun izandako pertsona gabe geratu zen; 25 urte zeramatzaten ezkontuta, eta alaba bat zuten, Maria.

2001 eta 2012 urteak bitartean, Eusko Jaurlaritzako Biktimen Arretarako Bulegoko zuzendari izan zen. Langraiz bidea justizia konponarazlearen egitasmoan parte hartu zuen. Indarkeria mota guztietako biktimei, alegia, ETArek, GAL erakundearen nahiz polizia-jazarpenen biktimei arreta berbera eskaintzeko erabakiarengatik, hainbat biktima-erakunderen eta alderdi politikoren kritikak jaso zituen.



MAIXABEL LASA
Bere ibilbidea

Juan María Jáuregui

Politikari sozialista espainiarra 2000 urtean akabatu zuen ETAK.

Frankismoaren oposizioan militante aktibo izan zen; ETAKo kide izan zen 1972 urtea arte. Ondoren, ibilbide politikoa Espainiako Alderdi Komunistan egin zuen. 80ko hamarkadan talde komunista eta Comisiones Obreras sindikatua utzi, eta PSEn sartu zen. Tolosan zinegotzi izan zen eta, ondoren, Gipuzkoako gobernatzailerik zibila 1996 urtea arte, José María Aznarren gobernuak kargutik kendu zuen arte.

Gertakari horren ostean, Jáuregui Euskadi utzi zuen ETArek mehatxupean egon zelako, hainbat alditan, gobernatzailerik izendatu zutenetik. Azken urteetan, Euskaditik kanpo bizi eta lan egin zuen; Tolosan oporretan zegoen, taberna batean lagun batekin zegoela hil zutenean.

6. Sinopsia

Maixabel Lasak 2000 urtean senarra, Juan María Jaúregui, galdu zuen ETArek erruz.

Hamaika urte beranduago, ez-ohiko eskaera bat jaso zuen: hiltzaileetako batek berarekin hitz egin nahi zuen Langraizko kartzelan, Araban, han betetzen ari baitzen kondena talde terroristarekin zuen harremana eten zuenetik.

Zalantzak eta mina izugarriak izan arren, Maixabel Lasak onartu zuen bere senarra akabatu zuten pertsonekin aurrez aurre elkartzeko eskaera.

“Mundu guztiak merezi du bigarren aukera bat” horixe esaten du senarra hil zion pertsonaren aurrean esertzeko arrazoiak galdetzen dizkienean.



7. Gidoi originala eta gidoi egokitua

Gidoi bat ideia original batetik abiatuz idatz daiteke: gidoilariak ideia bat du eta gidoi bilakatzen du; edo eleberri baten egokitzapena ere izan daiteke, edo bakarrikzeta batena, antzerki batena, edo benetako gertakari batean oinarrituta egon daiteke, film hau bezala.

Icíar Bollaín eta Isa Campos gidoilariak azaltzen dute film luzea egiteko ideia Koldo Zuazua eta Juan Morenori bururatu zitzaizela Monica Ceberioaren El Pais egunkariako artikulu batzuk irakurri ostean. Icíar Bollaín eta Isa Camposek, artikulu horietatik abiatuz, trama bat sortu zuten, eta gidoiaren ardatza Maixabel Lasaren istorioa izan zen.



Koldo Zuazuak
pelikulari buruz
hitz egiten digu



Mónica
Ceberioaren
artikuluak



8. Ikasgelan elkarrizketa lantzeko galdera motak

Elkarrizketa du oinarri proposamen metodologiko honek, eta, azken batean, etika bizirako prestakuntza bat da. Elkarrizketarekin martxan jartzen dira garapen intelektualerako eta pertsonetikiko errespeturako beharrezko prozedura eta jarrerak; horrek bizikidetzan on baterako trebakuntza eskaintzen du.

Informazio gehiago
Testuak eta galderak



9. Espainiako aldi erabakigarriak; “Ezagutu ez-jakintasunean ez bizitzeko eta akatsak ez errepikatzeko”

Eskoletako curriculumaren arabera, aldi hauek ikastetxeetan lantzen dira. Unitate didaktiko hauetan ikus-entzunezko baliabide batzuk eskaintzen dizkizuegu eta baita elkarrizketa osatu eta erraztuko duten artikuluko batzuk ere. Komunikabide askotarikoak eta idazle nahiz historialari anitzak sartu ditugu, ahalik eta ikuspegi zabalena eskaintzeko asmoz.

3 urtetako
Espainiako
gera zibila



1936-1939

La gran historia de la guerra civil española



1930-1935

1936-1938

*Literatura y guerra civil de
Arturo Perez Reverte. Hitzaldia*



Manuel Chaves Nogales-en *A sangre
y fuego!* liburuaren hitzaurrea (1937)



40 urtetako
diktadura
frankista



1939-1975

Franco, la verdadera historia



*Mitos al descubierto. Franco jefe
del gobierno del Estado*



*La dura verdad de la
dictadura de Franco* telesaila



Zer da terrorismoa?

Espainiako terrorismoa. Terrorismoaren deslegitimazioa.

Fernando Buesa fundazioak ikus-entzunezko material pedagogikoa sortu du gai horiek lantzeko.



Zer da terrorismoa?



Terrorismoa Espainian



Terrorismoaren deslegitimazioa



Amnistia
legea,
urriaren 15ean

1977

Europa Press agentziaren
artikulua



Terrorismoa
43 urtetan



1959-2012

Espainian, ETA eta beste talde terrorista
batzuen terrorismoa 43 urtetan.



EL INDEPENDIENTE



GARA



ETAren amaiera.
Dokumentala

10. Giza Eskubideen Hitzarmen Unibertsala berrikusi: Abenduaren 10a, Giza eskubideen eguna



Iñigo Águayo. Donostiako Udala

11. Memoriaren eguna, azaroak 10

Maixabelen diskurtsoaren bideoa



Eusko Jaurlaritzako Terrorismoaren Biktimen Bulegoan Mariabel Lasaren zuzendaritzapean sortu zen Memoriaren eguna, edozein motatako indarkeriaren biktima guztientzako omenaldia (19 a puntuari zehazten da). Hori kontatzen den gidoiaren sekuentzia erreproduzituko dugu, eta haurra besoetan duela Mariak ikusten duen benetako bideoa.

"24. SEK. MARIAREN ETXEA, HUELVA. Telebistako pantaila batean, Memoriaren eguneko hainbat momentu ikus ditzakegu; Patxi Lopez lehendakaria eta beste hainbat politikari ikus daitezke Ajuria Enean. Maixabel, prentsaren aurrean, hitzarmena irakurtzen ari da. Idatzita bere izena eta kargua: Eusko Jaurlaritzako Terrorismoaren Biktimen Bulegoko zuzendaria.

MAIXABEL

Gogoan ditugu T4ko leherketarekin amaitutako su-etenetik hildako hamabi pertsonak, eta azaroaren 10a izendatuko dugu "Memoriaren eguna".

Mariak serio entzuten dio amari, haurra besoetan paseatzen ari den bitartean.

MAIXABEL

Guretzat oso garrantzitsua zen memoriaren egun hori finkatzea; ETA oraindik amaitu ez den arren, egunen batean amaituko da, eta orduan askok nahi izango dute dena atzean utzi, bakea iristen denean. Baina ez diegu hori egiten utziko. Azaroaren 10a aukeratu dugu heriotza-atentaturik gabeko egun bakarrenetako bat zelako. Eta polemika handiarekin, biktima izaera ez diegu terrorismo biktimei soilik egotzi, baita beste indarkeria batzuetako biktimei ere: poliziaren biktimei, GAL taldearen biktimei...

Mariak besoetan duen haurra kulunkatzen du, eta goxo irribarre egiten dio, baina kezkatuta begiratzen dio telebistari. Eguneko hainbat momentu ikusten ditugu: ETArekin azken biktimei lore-eskaintzak eta omenaldiak. Maixabelen ahotsa entzuten jarraitzen dugu.

MAIXABEL

Biktima guztien memoria zaintzeak lagunduko du etorkizunean bakea eta askatasuna eskuratzen, denon artean bizikidetzatza osasuntsu bat eraiki dezagun...

12.

**GIZAKIA EDO
PERTSONA, lorpen
pertsonal bat.
Errukian, enpatian,
eskuzabaltasunean
eta errespetuan barna
egindako bidea**

Izaskun Andonegiri
elkarrizketa. Erein, Errukiaren
institutuaren zuzendaria.
Herritarren merituari domina.



13. Filma hitz bakarrean

Nola definituko zenuke filma?

Adibidez:

Bake alegatu bat

Bizikidetza

Barkamena

Errepikatu ezin den basakeria ...

14. Pertsonaien deskribapena

- | | |
|------------|------------------|
| • Maixabel | • Carmen |
| • Ibon | • Patxi Makazaga |
| • María | • Txema |
| • Luis | • Jaime Otamendi |
| • Esther | • Eskolta |

Bilakaerarik izaten dute filmean zehar?

Zertan datza bilakaera hori?

Zerk edo zeinek eragiten du hori eta zergatik?

15. Elkarrizketak

Maixabel Lasa

Maixabel Lasari elkarrizketak. Istorioaren protagonista eta filmaren kontakizuna giltzatzen duen ardatza.

Atal honetan, gomendatzen dugu ikasleek idaztea bihotzera iritsi zaizkien esaldi, hitz nahiz esapideak zein gustuko ez dituztenak.

Hainbat ikustea gomendatzen dugu, mezuaren funtsa iristeko. Lehen bi elkarrizketetan, Maixabel 2014 eta 2021 urteetan ikus dezakegu, eta, alderatuz, bien arteko bilakaera azter dezakegu.

EITB
Maixabel Lasa
2014 urtea



EITB
Maixabel Lasa
2021 urtea



CADENA SER
Maixabel Lasa
eta Blanca Portillo



ONDA CERO
Blanca Portillo
eta Maixabel Lasa



CAMPUS LEIOA
Maixabel Lasa



Ibon Etxezarreta

Ibon Etxezarretari elkarrizketa



Icíar Bollaín zuzendariari, Luis Tosar eta Blanca Portillo aktoreei eta Koldo Zuazua ekoizleari elkarrizketa

ZINEMALDIA 2021
Prentsaurrekoa



SENSACINE
Blanca Portillo eta Luis
Tosarri elkarrizketa



EITB
Icíar Bollaín zuzendariari
elkarrizketa



LATE MOTIV
Luis Tosar eta Blanca
Portillori elkarrizketa



16. Filmak igortzen dituen balio edo baloreak

- Solidaritatea
- Enpatia
- Entzutea
- Eskuzabaltasuna
- Norbere burua ezagutzea
- Errukia
- Kontziliazioa
- Bigarren aukera bat ematea
- Gainditzea
- Norbere burua lantzea
- Bakea
- Egindako mina aitortzea ...



17. Filmak zer sentimendu eragin dizkizu?

- A.** Beldurra / Mina / Larritasuna / Gorrotoa / Mirespena / Amorrua / Errukia / Ulertezintasuna / Ulermena / Poztasuna / Enpatia / Ingurunearekin haustea / Ingurunetik irtetea / Eboluzioa edo aldaketa pertsonala
- B.** Senarra hil zion pertsonarekin elkartzeko Maixabelen erabakiari buruz, zer sentitzen eta pentsatzen duzu? Ulertzen duzu? Zuk egingo zenuke?

18. Biktima, biktimagilea eta indarkeria motak

- A. Biktima:** delitu baten ondorio mingarriak jasaten dituen pertsona.
Zein dira biktimak filmean?
- B. Biktimagilea** beste izaki bizidun bat biktima bihurtzen duen pertsona da.
Nor dira biktimagileak pelikulan?
- C. Indarkeria motak:** gatazka armatu terroristak, poliziala, generokoa, egiturazkoa, estatukoa, psikologikoa, emozionala, ekonomiko-lan arlokoa, eskolakoa (bullying-a), taldekoa, bandak, komunikabideak, publizitatea, kirola eta kalean.

19. Sakontzeko proposamenak

LANGRAIZ BIDEA

Langraiz bidea prozesu pertsonal bat da. Hamaika presok aukeratu zuten bide hori. Urrusolo izan zen urrats hori eman zuen lehen ETako presoak.



EITB



EL PAIS

INDARKERIAREN DESLEGITIMAZIOA

Maixabel Lasa eta Blanca Portillori elkarrizketa ONDA CERO irratian, 7'30 min.



JUSTIZIA KONPONARAZLEA

“Ahal den neurrian delitu bateko kaltetuak barne hartzen dituen prozesua da; kolektiboki kalteak, beharrak eta betebeharrak identifikatzen dira, eta horiei aurre egiten saiatu, egoera sendatu eta gauzak ongi egiteko helburuarekin”.

Nazio Batuen arabera, justizia mota hori krimenarekiko erantzun garatu bat da. Pertsona bakoitzaren duintasuna eta berdintasuna errespetatzen du; ulermena eraikitzen du, eta gizarte armonia sustatu, biktimak, lege-hausleak eta komunitatea sendatzen dituen bitartean.



GARA



UNIVERSIDAD
COMPLUTENSE
DE MADRID

BIGARREN AUKERA BAT

Hainbat urte igaro dira elkarrizketa konponarazleak hasi zirenetik. Dokumental honetan Maixabel eta Ibon Etxezarreta mahai baten inguruan hizketan ari dira, kartzelatik kanpo.



Movistar+ katean *Zubiak* dokumentala ikustea gomendatzen dugu

20.

Zuen ustez, zer esan nahi dute esaldi hauek filmaren testuinguruan?

- “Historiaren berri izan, errepika ez dadin”
- “Egiak zauriak sendatzen ditu, eta berriro ere gerta ez dadin laguntzen du”
- “Bigarren aukera bat eman”
- “Kartzelak gizarteratzeko guneak”
- “Hobe hiltzaile bat damututa ateratzea kartzelatik eta gizarteratzea. Indarkeriaren deslegitimatzaile onena izango da”
- “Biktimagileek bizitza bikoitza zuten”

21. Elkarrizketak eta egoerak

Filmeko gidoitik ateratako zenbait elkarrizketa eta egoera (esaldiak komatxo artean), elkarrizketa errazteko galderekin.

05. SEKUENTZIA

”Bi neskek elkarri begiratzten diote ezer esan gabe, begirada jaitsi eta isilik jaten jarraitzen dute, informazioa onartu nahian arituko balira bezala”

Zergatik Mariaren lagunek ez dute ezer esaten aita hil diotela jakiten dutenean?

15. SEKUENTZIA

”Patxi, Luis eta Ibonek Euskal Herriaren alde topa egiten dute, eta hiruren lehen aldiagatik”

Pertsona bat hil berri dute eta EHren alde topa egiten dute. Zein da ospakizunerako arrazoia?

16. SEKUENTZIA

”Presoak epaitegiko arrainontzian daude. Aitonari begiratzten dio. Hark begirada jaisten du. Maixabelek begirada gurutzaketa hori behatzen du”

Presoen haserreak kontrastea egiten du Ibonen aitonaren geldotasunarekin. Zer adierazten du haren begiradak? Eta aitonarenak?



20. SEKUENTZIA

”Mariak errezeloa du zer esango ote duen amak Memoriaren eguna finkatzeko diskurtsoan”

Zer sentitzen du Mariak?

26. SEKUENTZIA

”Ibonen amaren etxeko bizilagunak eskerrak ematen dizkio”

Zergatik ematen dizkio eskerrak?

28. SEKUENTZIA

”Amaren etxeko Ibonen logelak oraindik du haren ohea, modaz pasatako edredoia eta paretak kartelez josita: borroka sandinistarenak, euskal musika taldeenak eta futbol-taldeenak. Ibonek amari dena botatzeko esaten dio. Zeinen inozoa nintzen gogorarazi nahi didazu?”

Zerk pentsarazten dio Iboni inozoa zela?

29. SEKUENTZIA

”Urrusolorekin hizketan ikusten du preso batek eta honako hau esaten dio Iboni: “Kolektibotik kanpo hotz handia egiten du”

Zer esan nahi du presoak esaldi horrekin? Sentitu al duzu inoiz taldetik kanpo egotearen hotza? Sentitu zara inoiz taldearen berotasunean “harrapatuta”?

30. SEKUENTZIA

“Ama, zure izena zerrenda batean topatu dute: hil egingo zaituzte”

Inork ezagutzen du talde armatu baten zerrendan egon den norbait?

32. SEKUENTZIA

Bitartekariak: “Zuetako batek ETako biktima batekin topaketa bat egin eta barkamena eskatzeko eskutitz bat bidali du” ...

Ibonek (gogor): “Horrek ez du inongo zentzurik; erakundeak eskatu behar du barkamena, ez guk. GU ez gara ETA; hortik atera gara. Ez dugu erakundea ordezkatzeko”.

Erantzukizunei muzin egiten ari dira ala pertsonalki lekuz kanpo daude dagoeneko ez daudelako ETaren barruan?

34. SEKUENTZIA

“Laguna, ez dut ontasun hau ulertzen. Etakideen topaketetan parte hartu behar duzu? Ezin diozu hori egin Juan Mariri. Antzerki bat baino ez da! Ez damu ez damu-ondoko, ETAK oraindik martxan jarraitzen du eta! Zer esan behar dizute?... barkatu baina hil egin behar zaituztegu, ulertuko duzue, ezta?”

Gizartearen zati batek uste zuen damua gezur bat baino ez zela



43. SEKUENTZIA

“Ibon atari batean sartu da bere giltzekin. Etxaurrean, atariaren ondoan idatzita: “Ibon traidorea”

26. eszenan, bizilagunak eskerrak ematen dizkio Iboni. 43. eszenan, “Ibon traidorea” idatzita ageri da etxaurrean.

Zer gertatu da? Zergatik idatzi dute hori?

46. SEKUENTZIA

“MAIXABEL (zinez beldurtuta) izua eragiten dit Mariak sufritzea. Juan Mari hil zutenean, nik banekien ez nintzela hondoratuko, konpromiso bera genuelako, biok pentsatzen baikenuen gauza bera. Baina Maria...”

MAIXABEL “Eta ni... Mariak esan zidanean haurdun zegoela, nik ez nuen pentsatu amona izango nintzenik ez ezer... pentsatzen nuen gauza bakarra izan zen Maria salbatu zela. Umeak izaten baldin bazituen, bizitzen jarraitu nahiko zuen”

Zein da Maixabelen beldurra ama gisa? Mariari zer suposatu zion haurdunaldiak?

56. SEKUENTZIA

Maixabel eta Ibon aurrez aurre kartzelan.
Lehen aldia da topo egiten dutela.

**“MAIXABEL “Ez zenekien nor hil behar zenuen?
Ez zenekien pertsona horretaz ezer?**

Lusek ezetz dio buruarekin eta momentuan
Estherri begiratzeko dio; nolabait konturatzen da
horrela ezin duela erantzun, eskuzabalagoa izan
behar dela bere hitzekin, eta azalpen gehiago
ematen ditu, nahiz eta nabaritu kosta egiten
zaiola.

LUIS: Ez, pertsona bati buruzko datuak iristen
zitzazkigun, eta guk ez genuen ikertzen;
dagoeneko erabakita zegoen.

MAIXABEL: Ez zizuten esan zergatik Juan Mari?

LUIS (Ebidentzia bat esaten ariko balitz bezala)
Ez, hori ez genuen galdetzen... ez zuen inporta.
Lusek Estherri begiratzeko dio konturatzen
arituko balitz bezala horrela ezin duela erantzun.

LUIS: Urte hartan 20 akabatu genituen. Bat
gehiago zen. Momentu hartan egin behar
genuena egiten genuen”

Kasu horretan, talde armatu baten pentsamenduekiko
atxikipenak puntu horretara arte itsutu gaitzake?



Gomendatutako irakurketa
La banalidad del mal, Hannah Arendt
y por qué se permiten atrocidades



22.

Koldo Zuazua ekoizle,
Icíar Bollaín zuzendari eta
Maixabel Lasaren mezua
proposamen didaktiko hau
lantzen duten ikasle, irakasle
eta pertsona guztiei.



23. Ariketa

Sufriarazi dizun norbaitekin hitz
egiteko urratsa emango zenuke?



DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN

GIZA ESKUBIDEEN
ZINEMALDIA
FESTIVAL DE CINE
Y DERECHOS HUMANOS
HUMAN RIGHTS
FILM FESTIVAL